Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2020ko urtarrilaren 27a, astelehena — 16 — Lunes, a 27 de enero de 2020

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK — 1 — DISPOSICIONES GENERALES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

*5/2020 Foru Agindua, urtarrilaren 22koa, alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zergaren marka fiskalak eskatzeko 517 eredua eta hura aurkezteko modua onartzen dituena.*

Otsailaren 16ko 113/2009 Foru Aginduaren bidez, zerga berezien eredu jakin batzuk onartu ziren, eta zerga horien kudeaketan bete beharreko arau batzuk bateratu eta egunean jarri ere egin ziren. Haren 4. artikuluan, onartu egiten da 517 eredua (fabrikazio zerga berezietako marka fiskalen eskaera), paperezko euskarriari dagokiona. Eredu hori aurkezteko, ez dago eperik, eta Ogasun eta Finantza Departamentuko Zuzeneko Zergak Kudeatzeko Zerbitzuko bulegoetan aurkeztu behar da.

2020ko urtarrilaren 1ean indarrean jarriko da uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuak onartutako Zerga Berezien Erregelamenduko 26. artikuluaren idazkera berria (abenduaren 28ko 1512/2018 Errege Dekretuaz emana). Indarrean jartzearen ondorioz, marka fiskaleko bi eredu berri onartu dira, etendura araubidetik kanpo zirkulatzen duten edari deribatuetako ontzi guztiek itsatsita eraman behar dituztenak, foru agindu honetan jarritako epealdi iragankorraren kalterik gabe.

Aldaketa handiak egiten dira zirkulazio xingola horietan. Izan ere, haiek segurtasun kode elektronikoa eramango dute, identifikazio kodea ikusgai izateaz gain, berehala haiek benetakoak direla ziurtatzeko eta elektronikoki marka fiskal bakoitza harrera establezimenduari buruzko datuekin (jarduera eta establezimendu kodea) eta haren titularrarekin (identifikazio fiskaleko zenbakia) lotzeko.

Eredu berrietan hainbat hobekuntza sartuko dira segurtasun teknikei dagokienez eta agiri zigilatuen inprimaketari dagokionez. Izan ere, segurtasun kode horien bidez, ahalbideratuko da kontrol organo eskudunek nahiz, gardentasun eta fidagarritasun handiagoei begira, kontsumitzaileek beraiek in situ egiaztatzea xingolak benetakoak direla.

Horiek horrela, beharrezkoa da eguneratzea alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zergaren marka fiskalen eskaerari buruzko 517 eredua eta hura aurkezteko modua.

Horrenbestez, hau

XEDATZEN DUT

*1. artikulua. Onartzea 517 eredua, «Alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zergaren marka fiskalen eskaera».*

1. Onartu egiten dira 517 eredua, «Alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zergaren marka fiskalen eskaera», eta hura aurkezteko jarraibideak, eta foru agindu honen eranskinean jasotzen dira.

2. 517 eredua bide elektronikoz aurkeztu behar da Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan. Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko web orrian (https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ogasuna) agertzen den formularioa bete beharko da.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

*Orden Foral 5/2020 de 22 de enero, por la que se aprueba el modelo 517 de solicitud de marcas fiscales del impuesto sobre el alcohol y bebidas derivadas, así como su forma de presentación.*

Por Orden Foral 113/2009, de 16 de febrero, se aprobaron determinados modelos y se refundieron y actualizaron diversas normas de gestión en relación con los Impuestos Especiales. En su artículo 4 se aprueba el modelo 517 –Impuestos Especiales de Fabricación. Petición de Marcas Fiscales–, en soporte papel, cuya presentación no está sujeta a plazos, debiendo realizarse en las oficinas del Servicio de Gestión de Impuestos Indirectos del Departamento de Hacienda y Finanzas.

La entrada en vigor el próximo día 1 de enero de 2020 de la nueva redacción del artículo 26 del Reglamento de los Impuestos Especiales, aprobado por el Real Decreto 1165/1995, de 7 de julio, dada por el Real Decreto 1512/2018, de 28 de diciembre, ha supuesto la aprobación de los nuevos modelos de marca fiscal que deberán llevar adheridos todos los envases o recipientes de bebidas derivadas, a salvo del periodo transitorio que se establece en esta orden foral, que circulen fuera del régimen suspensivo.

Se introducen cambios importantes en estas precintas de circulación, puesto que estas, además del código de identificación visible, incorporarán un código electrónico de seguridad que permita verificar inmediatamente su autenticidad y enlazar electrónicamente cada marca fiscal con los datos relativos al establecimiento al que son entregadas (código de actividad y establecimiento) y a su titular (número de identificación fiscal).

En los nuevos modelos se incorporarán mejoras desde el punto de vista de técnicas de seguridad e impresión de estos documentos timbrados, ya que permitirán a través de estos códigos de seguridad, una comprobación in situ de la veracidad de las mismas, tanto por los órganos de control competentes como, y en aras de una mayor transparencia y fiabilidad, por los propios consumidores.

Por lo expuesto, resulta necesario actualizar el modelo 517 de solicitud de marcas fiscales del impuesto sobre el alcohol y bebidas derivada, así como su forma de presentación.

En su virtud,

DISPONGO

*Artículo 1. Aprobación del modelo 517 «Solicitud de marcas fiscales del impuesto sobre el alcohol y bebidas derivadas».*

1. Se aprueba el modelo 517 «Solicitud de marcas fiscales del impuesto sobre el alcohol y bebidas derivadas» y las instrucciones para su cumplimentación, que se adjuntan como anexo de la presente orden foral.

2. La presentación del modelo 517 deberá realizarse por vía electrónica en la Sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa. A tal efecto, se debrá cumplimentar el formulario que figure en la página web del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa https://www.gipuzkoa.eus/es/web/ogasuna.

EK\CV GAO-I-2020-00353

517 eredua artisau destilatzaileen xingolen eskaeretan ere aplikatuko da, Zerga Berezien abenduaren 28ko 38/1992 Legearen 20. artikuluaren 6. apartatuan aipatuta badaude, betiere uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuaren bidez onartutako Zerga Berezien Erregelamenduak 97. eta 98. artikuluetan jasotako beharkizunak betez.

3. Eskaeraren aurkezpen elektronikoa establezimendu eskatzailearen titularrak berak egin ahal izango du, pertsona fisikoa izan zein juridikoa izan, edo, bestela, bere ordezkariak, betiere ekainaren 28ko 320/2017 Foru Aginduak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Administrazioarekiko harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzeko obligazioa arautzen duenak, jasotakoaren arabera.

Dena den, establezimenduaren titularra edo bere ordezkaria pertsona fisikoak badira eta eskaera web formulario baten bidez egiten badute, ziurtagiri elektroniko balioztatuaz gain, B@kQ ziurtagiri kualifikatua edo Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuan izaera orokorrez onartutako beste edozein sistema erabili ahal izango dute.

4. Eskaerak akatsak baditu edo interesdunak edo bere ordezkariak identifikazio fiskaleko zenbakia ezeztatuta badauka Zerga betebehar jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduak (abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretua) 79. artikuluan jasotakoaren arabera, errefusatu egingo da eskaera, onartu ez izanaren arrazoia adierazita. Eskaera errefusatuz gero, zergapekoak behar diren zuzenketak egin beharko ditu, bai eta eskaera berri bat aurkeztu ere. Behin eskaera onartuz gero, sistemak 40 karaktereko ziurtapen kode seguru bat itzuliko dio, aurkeztu izanaren frogagarri gisa, aurkezpen dataz eta orduaz gain.

*2. artikulua. Marka fiskalak baimendu eta fisikoki entregatzeko prozedura.*

1. Marka fiskalen eskaerak bide elektronikoz Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egingo dituzte fabrikatzaileek eta gordetegi fiskalen eta harrera gordetegien titularrek eta, hala badagokio, noizbehinkako hartzaile erregistratuek, jasotzaile baimenduek, urrutiko saltzaileen ordezkari fiskalek, igorle erregistratuek eta inportatzaileek. Horretarako, foru agindu honen eranskinean onartutako 517 eredua erabiliko dute.

2. Behin eskaera 517 ereduaren bidez jasoz gero, Zerga Administrazioak xingola fiskalen entrega baimendu edo ukatu beharko du, Zerga Berezien Erregelamenduak 26. artikuluan jarritako beharkizunak betetzen direla ziurtatuta. Bi kasuetan, Zerga Administrazioak mezu elektroniko bat bidaliko dio eskatzaileari, non adieraziko dion haiek fisikoki entregatu ahal izango direla edo, bestela, hala badagokio, hari ohartaraziko dion zergatik ez zaion eskaera onartu eta nola zuzendu ditzakeen antzemandako okerrak edo akatsak.

3. Behin Zerga Administrazioak eskaera baimenduta, bi modutan egingo da entrega fisikoa:

a) Establezimendu horrek aurreko urtean 500.000 xingolatik gora eskatu dituenean, baimendu ahal izango da Diruaren eta Zigiluen Fabrika Nazionalak fisikoki entregatzea zuzenean eskatzaileari, 517 ereduan adierazitako tokian.

Entrega fisikoa jaso izanaren berri eman beharko du Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez establezimendu eskatzailearen titularrak, haiek jaso ondorengo berrogeita zortzi orduen barruan, informazio hau adierazita:

1.a. Marka fiskalak jaso izanaren data. UUUU/HH/EE.

2.a. Jasotako xingolen serieen numerazioa (hasiera eta amaiera).

El modelo 517 también será aplicable para las solicitudes de precintas de los destiladores artesanales, a los que se refiere el apartado 6 del artículo 20 de la Ley 38/1992, de 28 de diciembre, de Impuestos Especiales, con el cumplimiento de los requisitos establecidos en los artículos 97 y 98 del Reglamento de los Impuestos Especiales, aprobado por el Real Decreto 1165/1995, de 7 de julio.

3. La presentación electrónica de la solicitud podrá ser efectuada por el propio titular, persona física o jurídica, del establecimiento solicitante, o bien por su representante, de conformidad con lo dispuesto en la Orden Foral 320/2017, de 28 de junio, por la que se regula la obligación de relacionarse con la Administración tributaria foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa por medios electrónicos.

No obstante, si el titular del establecimiento o su representante son personas físicas y realizan la solicitud a través del formulario web, podrán utilizar, además del certificado electrónico reconocido, el certificado cualificado B@kQ, o cualquier otro sistema admitido con carácter general en el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

4. Si la solicitud contuviera errores, o bien el interesado o su representante tengan el número de identificación fiscal (NIF) revocado conforme al artículo 79 del Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre, se rechazará la solicitud, indicando los motivos por los que no ha sido aceptada. En caso de rechazo, el obligado tributario deberá realizar las correcciones necesarias y proceder a la presentación de una nueva solicitud. Una vez aceptada la solicitud el sistema devolverá un código seguro de verificación de 40 caracteres, además de la fecha y hora de presentación, como justificante de la misma.

*Artículo 2. Procedimiento para la autorización y entrega física de las marcas fiscales.*

1. Los fabricantes y titulares de depósitos fiscales y de depósitos de recepción, así como, en su caso, los destinatarios registrados ocasionales, los receptores autorizados, los representantes fiscales de vendedores a distancia, los expedidores registrados y los importadores, formularán las solicitudes de marcas fiscales por vía electrónica a través de la Sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, mediante el modelo 517 aprobado en el anexo de la presente orden foral.

2. Una vez recibida la solicitud a través del modelo 517, la Administración tributaria deberá autorizar o denegar la entrega de las precintas fiscales solicitadas, verificando el cumplimiento de los requisitos establecidos en el artículo 26 del Reglamento de los Impuestos Especiales. En ambos casos, la Administración tributaria enviará un mensaje electrónico al solicitante indicándole que, o bien, se podrá realizar la entrega física de las mismas, o por el contrario y en su caso, la causa que impide acceder a lo solicitado y la posibilidad de subsanar los defectos o errores advertidos.

3. Autorizada la solicitud por la Administración tributaria, la entrega física se efectuará de dos formas:

a) Cuando dicho establecimiento hubiera solicitado el año anterior un número superior a 500.000 precintas se podrá autorizar la entrega física directamente por parte de la Fábrica Nacional de Moneda y Timbre al solicitante en el lugar indicado en el modelo 517.

La recepción de la entrega física se deberá comunicar a través de la Sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, por parte del titular del establecimiento solicitante, dentro de las cuarenta y ocho horas siguientes a dicha recepción, incorporando la siguiente información:

1.º Fecha de recepción de las marcas fiscales. DD/MM/AAAA.

2.º Numeración (desde-hasta) de las series de precintas recibidas.

3.a. Entregatutako xingolen eskaeraren zenbakia (517 eredua).

Gainera, baldin eta entrega fisikoaren ondoren antzematen bada gorabeherak edo akatsak gertatu direla benetan jasotako marka fiskalen kopuruari, numerazioari edota motari dagokionez, titular horrek haien berri eman beharko dio Zerga Administraziori, horien jakitun denean.

Harrera fisikoan edozein gorabehera gertatu izanaren berri emanez gero, Zerga Administrazioak haiek ziurtatzeko jarduketak egingo ditu, ondorengo bost egun baliodunen barruan. Epe horretan, establezimendu jasotzaileak ezin izango ditu xingolak erabili, harik eta Zerga Administrazioak espresuki baimendu arte edo, bestela, epe hori ziurtapen jarduketak egin gabe amaitu arte.

b) Establezimenduak aurreko urtean 500.000 xingolatik behera eskatu baditu, entrega fisikoa Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuan egingo da, artikulu honen 2. apartatuan aipatutako mezu elektronikoa bidali ondoren.

Ogasun eta Finantza Departamentuak entrega fisikoa egiten duenean, datari, xingolen numerazioari eta eskaera zenbakiari (517 eredua) buruzko datuen baieztapena xingolak jasotzean grabatu beharko da, xingolak hartu izanaren kopia sartuta.

Diruaren eta Zigiluen Fabrika Nazionalak zuzenean entregatzeko aurreikusitako modu berean [aurreko a) letra], establezimendu eskatzailearen titularrak Zerga Administraziori jakinarazi beharko dio, halakorik antzematen denean, benetan jasotako marka fiskalen kopuruari, numerazioari edota motari dagokionez gertatutako edozein gorabehera edo akats.

Harrera fisikoan edozein gorabehera gertatu izanaren berri emanez gero, haiek ziurtatzeko jarduketak egin beharko dira, ondorengo bost egun baliodunen barruan. Epe horretan, establezimendu jasotzaileak ezin izango ditu xingolak erabili, harik eta Zerga Administrazioak espresuki baimendu arte edo, bestela, epe hori ziurtapen jarduketak egin gabe amaitu arte.

4. Dagoeneko emanda dauden xingolak falta direnean, Zerga Berezien Erregelamenduko 26. artikuluaren 9. apartatuan jasotako zerga bereziaren kuoten likidazioa egiteko, likidazioa aurreko urtean eskatzailearen establezimendutik atera diren botila edo ontzien batez besteko edukieren arabera kalkulatuko da.

*3. artikulua. Marka fiskalak jaso ondoren aurkeztu beharreko informazioa.*

1. Marka fiskalak fisikoki jaso ondoren, establezimendu eskatzaileak honako informazio hau sartu beharko du Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan, xingolak establezimendu eskatzailetik atera aurretik, betiere Zerga Berezien Erregelamenduak 26. artikuluaren 4. apartatuan jasotakoaren arabera:

a) Harrera establezimenduaren identifikazio fiskala.

b) Fisikoki non itsatsiko zaizkien marka fiskalak edari deribatuen botilei edo ontziei (establezimendu eskatzailean, jatorrian edo botilaratze edo ontziratze planta independentean).

c) Establezimenduaren titularra (IFZ; JEK eta izen-deiturak edo sozietate izena), xingolak edari deribatuen botila edo ontzietan itsasteko hartzen dituena.

d) Lote zenbakia, botila edo ontzi horietan sartutako produktuari dagokiona.

e) Xingolak itsatsita dituzten botila edo ontzien edukiera.

f) Botila edo ontzi horietan jasotako edari deribatuaren alkohol gradua.

3.º Número de la solicitud (modelo 517) correspondiente a las precintas entregadas.

Además, si con posterioridad a la entrega física se detectan incidencias o errores en la cantidad, numeración y/o tipo de marcas fiscales efectivamente recibidas, este titular deberá comunicarlos, en el momento en que se conozcan, a la Administración tributaria.

En caso de comunicación de cualquier incidencia en la recepción física, la Administración tributaria realizara las actuaciones oportunas de verificación de estas, dentro de los cinco días hábiles siguientes, durante los cuales el establecimiento receptor no podrá disponer de las precintas afectadas, hasta que la Administración tributaria les autorice expresamente o, en su defecto, haya transcurrido el plazo anterior sin que se hubiesen realizado dichas actuaciones.

b) Cuando el establecimiento hubiera solicitado el año anterior un número inferior a 500.000 precintas, la entrega física se efectuará en el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa, con posterioridad al mensaje electrónico previsto en el apartado 2 de este artículo.

En el supuesto de entrega física por parte del Departamento de Hacienda y Finanzas, la confirmación de los datos de fecha, numeración de precintas y número de solicitud (modelo 517), deberá ser grabada en el momento de la recepción, incluyendo copia del acuse de recibo de ésta.

De la misma forma que la prevista en la entrega directa desde la Fábrica Nacional de Moneda y Timbre, letra a) anterior, el titular del establecimiento solicitante deberá comunicar a la Administración tributaria, en el momento de su detección, cualquier incidencia o error en la cantidad, numeración y/o tipo de marcas fiscales efectivamente recibidas.

En caso de comunicación de cualquier incidencia en la recepción física, se deberán realizar las actuaciones oportunas de verificación de estas, dentro de los cinco días hábiles siguientes, durante los cuales el establecimiento receptor no podrá disponer de las precintas afectadas, hasta que la Administración tributaria lo autorice expresamente o, en su defecto, haya transcurrido el plazo anterior sin que se hubiesen realizado dichas actuaciones.

4. En el caso de falta de precintas ya entregadas, al objeto de efectuar la liquidación de las cuotas del impuesto especial, prevista en el apartado 9 del artículo 26 del Reglamento de los Impuestos Especiales, el cálculo de la liquidación se efectuará de acuerdo con las capacidades medias de los envases o botellas que hayan salido del establecimiento del solicitante el año anterior.

*Artículo 3. Información a incorporar tras la recepción de las marcas fiscales.*

1. Tras la recepción física de las marcas fiscales, el establecimiento solicitante deberá incorporar a la Sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, antes de la salida de las precintas del establecimiento solicitante, en los términos previstos en el apartado 4 del artículo 26 del Reglamento de los Impuestos Especiales, información sobre:

a) Identificación fiscal del establecimiento de recepción.

b) Lugar de adhesión física de las marcas fiscales a las botellas o envases de bebidas derivadas (establecimiento solicitante, adhesión en origen o bien planta embotelladora o envasadora independiente).

c) Titular del establecimiento (NIF, CAE y nombre, apellidos o denominación social) destinatario de precintas para su adhesión a las botellas o envases de bebidas derivadas.

d) Número de lote al que pertenezca el producto incluido en dichas botellas o recipientes.

e) Capacidad de los envases o recipientes a los que se adhieran las precintas.

f) Grado alcohólico de la bebida derivada de dichos envases o recipientes.

EK\CV GAO-I-2020-00353

g) Produktuaren deskripzio komertziala.

2. Itsasontzi edo aireontzietan kontsumitu edo saltzeko diren edari alkoholikoak hornitzea bakarrik baimenduta duten gordetegi fiskalen kasuan, bidaiariei edari deribatuak saltzeari dagokionez, xingola fiskala itsatsita eraman behar duten eta hil natural bakoitzean egin diren eragiketekin lotuta, gordetegi horiek saldutako botila edo ontziei itsatsitako unitate kopurua eta xingola eredua bakarrik komunikatu beharko dute, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez, ondoko hilaren lehen bost egun baliodunen barruan.

3. Artikulu honetan jasotakoa ez da aplikatuko artisau destilatzaileek xingolak jasotzen dituztenean.

*4. artikulua. Marka fiskalen kontabilitatea.*

1. Zerga Berezien Erregelamenduko 26. artikuluaren 10. apartatuan jasotakoaren arabera, marka fiskalak jasotzen dituzten establezimenduen titularrek marka fiskalen liburu bat eraman beharko dute. Bertan, honako hauek jaso beharko dituzte, hala badagokio: hileko epealdi bakoitzaren hasieran eta amaieran dauden izakinak, fisikoki eman zaizkien marka fiskalak eta dagoeneko botila eta ontziei itsatsita dauden markak –bai establezimenduan bertan dauden botila eta ontzietakoak eta bai hartatik ateratzen direnetakoak–, betiere etendura araubidean egiten diren irteerak eta zerga berezia sortuta egiten diren irteerak.

2. Marka fiskalak jasotzen dituzten establezimenduak, alde batera utzita artisau destilatzaileak (nolanahi ere, kontabilitatea paperezko euskarrian eraman beharko dute) aurreko apartatuan aipatutako liburuak komunikatu beharko dituzte hilero, bide elektronikoz Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez, une bakoitzean egoitza elektronikoan adierazten den formatuan.

3. Nolanahi ere, marka fiskalen kontabilitate liburuetako idazpenek ahalbidetu beharko dute Zerga Administrazioak noiznahi ziurtatzea indarrean dagoen araudian exijitutako beharkizun eta baldintzak betetzen direla, batez ere Zerga Berezien Erregelamenduak 26. artikuluaren 5. apartatuan jasotako bermeen arloari dagokionez, eta artikulu beraren 9. apartatuan jasotako marka fiskalen zenbaketa egitea.

*5. artikulua. Segurtasun kodeak suntsitu, erabilezin bihurtu edo baja elektronikoa emateko prozedura.*

1. Zerga Berezien Erregelamenduak 26. artikuluaren 11. zenbakian eta 53 bis artikuluaren 3. zenbakian jasotako kasuetan, edari deribatuen botila edo ontziei itsatsitako marka fiskaletan adierazitako segurtasun kodeak establezimendu interesdunak berak eskatuta suntsitu, erabilezin bihurtu edo baja elektronikoa eman ahal izango zaie, betiere Zerga Administrazioaren kontrolpean eta barruko lurralde eremu honetatik irten aurretik, segurtasun kode horiei baja elektronikoa emateko eskaera elektronikoa eginez.

2. Eskaera elektroniko horretan, establezimendu eskatzaileak segurtasuneko kode elektroniko guztien identifikazioaren xehetasuna eman beharko du, haiei baja ematea nahi badu. Horretarako, adierazi beharko du irteera esportazio bat, batasun barruko igorpen bat edo itzulketa eskaera bat ote den edo eskaera egiteko arrazoia zein den, bai eta zer motatakoak diren marka fiskalak itsasteko erabilitako botila edo ontziak eta zein den produktu komertziala ere.

3. Baja elektronikoa eman aurretik Zerga Administrazioak behar dena erabakiko du bost egun balioduneko epean egiaztapen fisiko egokiak egin daitezen, betiere establezimenduak xedatutako kode elektronikoak eskatzailearen botila edo ontziekin eta bajaren arrazoiarekin bat datozela ziurtatzeko. Alderdi horiek erabat edo partzialki ziurtatuta, segurtasun kodeei baja elektronikoa emango zaie.

g) Descripción comercial del producto.

2. En el caso de depósitos fiscales autorizados exclusivamente para el suministro de bebidas alcohólicas destinadas al consumo o venta a bordo de buques o aeronaves, con respecto a las ventas a viajeros de bebidas derivadas, que deben llevar incorporada la precinta fiscal y que se hubieran efectuado cada mes natural, dichos depósitos únicamente deberán comunicar, a través de la Sede de la Diputación Foral de Gipuzkoa, el número de unidades y el modelo de precintas adheridas a las botellas o recipientes vendidos, dentro de los cinco primeros días hábiles de mes siguiente.

3. Lo dispuesto en el presente artículo no será de aplicación a los supuestos de recepción de precintas por parte de destiladores artesanales.

*Artículo 4. Contabilidad de marcas fiscales.*

1. Conforme con lo previsto en el apartado 10 del artículo 26 del Reglamento de los Impuestos Especiales, los titulares de los establecimientos receptores de marcas fiscales deberán llevar un libro de marcas fiscales en el que se deberán anotar, en su caso, las existencias iniciales y finales de cada periodo mensual, las marcas fiscales que les han sido entregadas físicamente, y las marcas ya adheridas a las correspondientes botellas o envases, tanto las que permanecen en el propio establecimiento, como aquellas que salen del mismo, diferenciando las salidas que se producen en régimen suspensivo de las salidas con devengo del impuesto especial correspondiente.

2. Los establecimientos receptores de marcas fiscales, excluidos los destiladores artesanales que en todo caso deberán llevar la contabilidad en soporte papel, comunicarán con carácter mensual los libros citados en el apartado anterior por vía electrónica a través de la Sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en el formato que en cada momento se indique en dicha sede electrónica.

3. En todo caso, los asientos de los libros de contabilidad de marcas fiscales deberán permitir a la Administración tributaria verificar, en cualquier momento, el cumplimiento de los requisitos y condiciones exigidas por la normativa vigente, sobre todo en materia de garantías prevista en el apartado 5 del artículo 26 del Reglamento de los Impuestos Especiales, y recuento de marcas fiscales previsto en el apartado 9 del mismo artículo.

*Artículo 5. Procedimiento de destrucción, inutilización o baja electrónica de los códigos de seguridad.*

1. En los supuestos previstos, en los apartados número 11 del artículo 26 y número 3 del artículo 53 bis, ambos del Reglamento de los Impuestos Especiales, la destrucción, inutilización o baja electrónica de los códigos de seguridad incorporados a las marcas fiscales adheridas a recipientes o envases de bebidas derivadas, podrá realizarse a instancias del propio establecimiento interesado, siempre bajo control de la Administración tributaria y con carácter previo a la salida de este ámbito territorial interno, mediante solicitud electrónica, de baja electrónica de dichos códigos de seguridad.

2. En dicha solicitud electrónica, el establecimiento peticionario deberá detallar la identificación de todos y cada uno de los códigos electrónicos de seguridad cuya baja se pretende, indicando si la salida se trata de una exportación o un envío intracomunitario, una solicitud de devolución o la causa que motiva la solicitud, así como el tipo de envases o recipientes donde están adheridas dichas marcas fiscales y el producto comercial.

3. La Administración tributaria dispondrá, con carácter previo a dicha baja electrónica, lo necesario para que, en el plazo de cinco días hábiles, se realicen las comprobaciones físicas oportunas al objeto de verificar que los códigos electrónicos detallados se corresponden con los de los envases o recipientes que posee el solicitante y el motivo de la baja. Verificados, total o parcialmente, dichos extremos se efectuará la baja electrónica de los códigos de seguridad.

EK\CV GAO-I-2020-00353

Behin segurtasun kodeei baja elektronikoa emanda, Zerga Administrazioak eskatzaileari bajaren berri emango dio bide elektronikoz, edo, bestela, azkenean hura baimendu ez bada, eskaera ukatzeko arrazoiaren berri.

4. Zerga Berezien Erregelamenduak 6. artikuluaren 5. apartatuan jasotako itzulketa eskaerako kasuetan, erabilezin bihurtzeko edo baja elektronikoa emateko eskatu ez denean eta, beraz, xingola fiskalak suntsitzea beharrezkoa denean, eskatzaileak suntsitze moduaren eta aurreikusitako dataren berri eman beharko dio Zerga Administrazioari. Haren berri eman ondorengo hiru egun balioduneko epean, kodeak suntsitzeko behar diren izapideak egingo dira, betiere Zerga Administrazioko zerbitzuen kontrolpean.

*Xedapen gehigarri bakarra. Izakinen aitorpena eta marka fiskalen suntsidura.*

1. 2020ko urriaren 31aren aurretik, fabrikatzaileak eta gordetegi fiskal eta harrera gordetegien titularrek, bai eta, hala badagokio, noizbehinkako hartzaile erregistratuek, jasotzaile baimenduek, urrutiko saltzaileen ordezkari fiskalek, igorle erregistratuek eta inportatzaileek Zerga Administratzaileari aitorpen bat aurkeztu behar diote izakin moduan itsatsi gabe dauzkaten foru agindu hau indarrean jarri aurretik indarrean dauden P3, P4, P5, P6, P7, P8, G3, G4 eta G5 ereduetako fiskalei buruz, betiere haien numerazioa adierazita. Aitorpen hori aurkeztu ondoren eta, nolanahi ere, 2020ko abenduaren 31ren aurretik, lehenago adierazitako xingolak emango dizkiote Zerga Administrazioari, hark suntsitu ditzan. Xingolak ematen dituzten unetik aurrera, xingola horien zerga berezien balioak ez du zenbatuko Zerga Berezien Erregelamenduak 26. artikuluan jasotako bermeen muga kalkulatzeko.

2. 2021eko martxoaren 31ren aurretik, Zerga Administrazioak aurreko paragrafoan aipatutako xingolak suntsituko ditu, bai eta Administrazioak berak eman gabe dauzkan E4, E5, P3, P4, P5, P6, P7, P8, G3, G4 eta G5 ereduko xingolen izakinak ere. Suntsidura horren akta egingo da, suntsitutako xingolen mota, numerazioa eta kopurua eta suntsitze tokia eta data baiaztatuta.

*Xedapen iragankor bakarra. Establezimenduak berak marka fiskalen izakinak itsasteko epe iragankorra.*

2020ko lehen sei hilabeteen barruan, establezimenduek Zerga Administrazioari eskatu dizkioten eta aurreko xedapen gehigarri bakarrean aipatu diren E4, E5, P3, P4, P5, P6, P7, P8, G3, G4 eta G5 ereduko xingolak itsasten jarraitu ahal izango dituzte, foru agindu honetako 4. artikuluan jasotako informazioa ematera behartuta egon gabe.

*Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.*

Edukirik gabe uzten da Zerga berezien zenbait eredu onartu eta zerga horien kudeaketan bete beharreko arau batzuk bateratu eta egunean jartzen dituen otsailaren 16ko 113/2009 Foru Aginduaren 4. artikulua.

*Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea.*

Foru agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta egun berean jarriko da indarrean, eta 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Donostia, 2020ko urtarrilaren 22a.—Jabier Larrañaga Garmendia, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.
(353)

Una vez efectuada la baja electrónica de los códigos de seguridad citados, la Administración tributaria comunicará al solicitante, por vía electrónica, dicha baja, o bien la causa de denegación de la misma en el caso de que finalmente no se haya autorizado.

4. En los supuestos de solicitud de devolución, previstos en el apartado 5 del artículo 6 del Reglamento de los Impuestos Especiales, en los que no se haya solicitado la inutilización o baja electrónica y por tanto sea necesario la destrucción física de las precintas fiscales, el solicitante deberá comunicar a la Administración tributaria, modo de destrucción y fecha previstos. En el plazo de los tres días hábiles siguientes a dicha comunicación, se realizarán los trámites necesarios para efectuar dicha destrucción, siempre bajo el control de los servicios de la Administración tributaria.

*Disposición adicional única. Declaración de existencias y destrucción de marcas fiscales.*

1. Antes del 31 de octubre de 2020, los fabricantes y titulares de depósitos fiscales y de depósitos de recepción, así como, en su caso, los destinatarios registrados ocasionales, los receptores autorizados, los representantes fiscales de vendedores a distancia, los expedidores registrados y los importadores presentarán ante la Adminsirtación tributaria, declaración comprensiva de las precintas fiscales que tengan en existencias sin adherir de los modelos P3, P4, P5, P6, P7, P8, G3, G4 y G5, vigentes hasta la fecha de entrada en vigor de la presente orden foral, con expresión de su numeración. Con posterioridad a la presentación de dicha declaración, y en todo caso antes del 31 de diciembre de 2020, harán entrega a la Administración tributaria las precintas antes señaladas para su destrucción. Desde este momento de entrega, el valor del impuesto especial correspondiente a dichas precintas no computará a los efectos del cálculo del límite de las garantías previstas en el artículo 26 del Reglamento de los Impuestos Especiales.

2. La Administración tributaria procederá, antes del 31 de marzo de 2021, a la destrucción de las precintas a que se refiere el apartado anterior, así como de las existencias de precintas sin entregar de los modelos E4, E5, P3, P4, P5, P6, P7, P8, G3, G4 y G5 que tenga la propia la propía Administración. De dicha destrucción se levantará el acta correspondiente, confirmando, el tipo, la numeración y cantidad de las precintas destruidas, lugar y fecha de la destrucción.

*Disposición transitoria única. Periodo transitorio para la adhesión de marcas fiscales en existencias por el propio establecimiento.*

Durante los seis primeros meses de 2020, los establecimientos podrán seguir adhiriendo las precintas que hayan solicitado a la Administración tributaria antes del 1 de enero de 2020, de los modelos E4, E5, P3, P4, P5, P6, P7, P8, G3, G4 y G5, citados en la disposición adicional única anterior, sin la obligación de incorporar la información prevista en el artículo 4 de la presente orden foral.

*Disposición derogatoria única. Derogación normativa.*

Se deja sin contendio el artículo 4 de la Orden Foral 113/2009, de 16 de febrero, se aprobaron determinados modelos y se refundieron y actualizaron diversas normas de gestión en relación con los Impuestos Especiales.

*Disposición final única. Entrada en vigor.*

La presente orden foral entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y surtirá efectos a partir de 1 de enero de 2020.

San Sebastián, a 22 de enero de 2020.—El diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, Jabier Larrañaga Garmendia.
(353)

EK\CV GAO-I-2020-00353

ERANSKINA | ANEXO

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Departamentua
Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Hacienda y Finanzas

www.gipuzkoa.eus/ogasuna
*8400052102019*

**Alkohol eta edari deribatuen gaineko zergaren marka fiskalen eskaera**

**Solicitud de marcas fiscales del impuesto sobre el alcohol y bebidas derivadas**

**517**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **1 Eskatzailea** Solicitante | **IFZ**/NIF | **JEK**/CAE | **JBK**/CAR |
| | **Deiturak eta izena edo sozietate izena** / Nombre y apellidos o razón social | | |
| **2 Entrega mota** Tipo de entrega física | **Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren bitartez egindako entrega zuzena** Entrega directa por parte de la Fábrica Nacional de Moneda y Timbre ☐ | | |
| | **Kudeaketa bulegoaren bitartez egindako entrega** Entrega a través de la oficina gestora ☐ | | |
| **3 Establezimenduaren helbidea** Domicilio del establecimiento | **Helbidea**/Domicilio | | **Zk**/Nº |
| | **Herria**/Municipio | | **Probintzia**/Provincia |
| **4 Eskatzailearen harremanetarako datuak** Datos de contacto del solicitante | **IFZ**/NIF | **Telefonoa** / Teléfono | **Posta elektronikoa** / Correo electrónico |
| | **Deiturak eta izena edo sozietate izena** / Nombre y apellidos o razón social | | |

☐ **Eskatzaileak adierazten du baimentzen duela harremanetarako datuak Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalari lagatzea, soilik xingola fiskalen entregak eta hauekin zer ikusia dituzten gertaerak kudeatzeko.**
El solicitante manifiesta su conformidad a la autorización para la cesión de los datos de contacto a la Fábrica Nacional de Moneda y Timbre, a los únicos efectos de gestionar los envíos e incidencias asociadas a las entregas físicas de las precintas.

**5. Xingola fiskalen eskaerak, inportazio edo batasunaren gainerako lurralde eremutik iritsitako edari deribatuen kasuetan, Zerga Berezien erregelamenduaren 26. artikuluaren 6 eta 7 apartatuetan aurreikusiak**
Solicitudes de precintas fiscales en los supuestos de importación o de recepción de bebidas derivadas del ámbito territorial comunitario no interno, previstos en los apartados 6 y 7 del artículo 26 del Reglamento de los Impuestos Especiales.

| | |
|---|---|
| **Helmugan itsatsita** Adherida en destino ☐ | **Xingolak itsatsiko diren helbidea** / Dirección de adhesión de las precintas |
| **Jatorrian itsatsita** Adherida en origen ☐ | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **6 Lehentasunezko bidaltze data** Fecha envío preferente | | **7 Aurreko urteko batez besteko graduazioa** Graduación media año natural anterior | |
| **8 Marka fiskalen existentziak** Existencias de Marcas fiscales | | **9 Kudeaketa bulegoan eratutako bermea** Importe de garantía constituida ante la oficina gestora | |

| | |
|---|---|
| **10 Aurreko urtean salbuespenik gabe etendura araubidean irteerak (L)** Salidas del régimen suspensivo sin exención del año anterior (L) | |
| **11 Botila edo ontziaren aurreko urteko batez besteko bolumena** Capacidad media de la botella, envase o recipiente en el año anterior | |

**12 Marka fiskalen eskaera** / Petición de Marcas fiscales

| **Kodea** / Código | **Deskribapena** / Descripción | **Kantitatea**/Cantidad |
|---|---|---|
| | | |
| | | |

| | | |
|---|---|---|
| **13 Kudeaketa bulegoaren bitartez jasotzeko baimenduta dagoen pertsona** Persona física autorizada para recepción física a través de oficina gestora | **IFZ**/NIF | **Deiturak eta izena** / Nombre y apellidos |
| | **Sinadura** / Firma | |
| **14 Oharrak** Observaciones | | |

EK\CV GAO-I-2020-00353

*517 eredua betetzeko jarraibideak: «Alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zergaren marka fiskalen eskaera».*

517 ereduan barnean hartzen dira bete beharreko eremuak eta haien deskribapenak.

*1. Eskatzailearen identitatea.*

— Eskatzailearen abizenak eta izena edo sozietate izen edo izendapena (inoiz ere ezingo da izen komertziala adierazi).

— IFZ, eskatzailearena.

— JEK kodea, eskatzailearena. Eskatzailea zerga berezien lurralde erregistroan inskribatuta dagoenean jarri beharko da.

— JBK kodea, eskatzailezarena. Eskatzaileak zerga bereziei lotutako produktuak Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetatik jasotzeko baimena eman duenean jarri beharko da.

*2. Entrega fisikoaren mota.*

Xingolak Diruaren eta Zigiluen Fabrika Nazionalak zuzenean entregatzea.

Xingolak Zerga Administrazioaren bidez entregatzea.

*3. Establezimenduaren helbidea.*

Establezimendu jasotzailearen helbide osoa adierazi beharko da, Diruaren eta Zigiluen Fabrika Nazionalak zuzenean entregatzen dituenean bakarrik.

*4. Eskatzailearen harreman datuak.*

Bloke honetan, xingolen eskaerari buruzko harreman datuak adierazi ahal izango dira. Zerga Administrazioak edo Diruaren eta Zigilatuen Fabrika Nazionalak eskaerari eta harekin lotutako entregei buruzko informazioa bidaltzeko erabiliko dituzte datu horiek.

— IFZ.

— Abizenak eta izena, edo sozietatearen izena.

— Telefonoa.

— Helbide elektronikoa.

Nolanahi ere, eskatzaileak espresuki adierazi beharko du ados dagoela harreman datuak Diruaren eta Zigiluen Fabrika Nazionalari lagatzeko baimena ematearekin, xingola fiskalen entrega fisikoei lotutako bidalketak eta gorabeherak kudeatzeko bakarrik.

5. Xingola fiskalen eskaerak, Zerga Berezien Erregelamenduak 26. artikularen 6. eta 7. apartatuetan jasotako Batasunaren gainerako lurralde eremuko edari deribatuak inportatzean edo jasotzean.

Xingolak helmugan itsastea.

Xingolak Zerga Administrazioko esku hartze zerbitzuen kontrolpean itsasteko aukeratutako tokiaren helbide osoa.

Xingolak jatorrian itsastea.

*6. Lehentasunezko igorpen data.*

Adierazi behar da zein den xingolak entregatzeko lehentasunezko data. Benetako entrega eguna aldatu ahal izango da, xingolak erabiltzeko moduan dauden kontuan hartuta.

*7. Aurreko urte naturaleko batez besteko graduazioa.*

Adierazi beharko da, bi dezimal jarrita, zein den aurreko urte naturalean establezimendutik atera diren edari deribatu prestatuen batez besteko graduazio alkoholikoa.

*8. Marka fiskalen izakinak.*

Establezimendu eskatzaileek marka fiskalen izakinak adierazi behar dituzte, itsatsita dituztenak zein botila edo ontzietan itsasteko daudenak.

*Instrucciones para la cumplimentación del modelo 517 «Solicitud de marcas fiscales del impuesto sobre el alcohol y bebidas derivadas».*

El modelo 517 aprobado incluye los siguientes campos y descripciones de cumplimentación de los mismos.

*1. Identidad del solicitante.*

— Nombre, apellidos o razón o denominación social del solicitante (en ningún caso podrá reflejar el nombre comercial).

— NIF del solicitante.

— CAE del solicitante. Se deberá consignar cuando el peticionario se encuentre inscrito en el registro territorial de Impuestos Especiales.

— CAR del solicitante. Se deberá consignar cuando el peticionario haya sido autorizado a recibir productos objeto de Impuestos Especiales de otros Estados miembros de la Unión Europea.

*2. Tipo de entrega física.*

Entrega directa por parte de la Fábrica Nacional de Moneda y Timbre.

Entrega a través de la Administración tributaria.

*3. Domicilio del establecimiento.*

Deberá indicarse la dirección completa del establecimiento receptor, únicamente en los supuestos de entrega directa por parte de la Fábrica Nacional de Moneda y Timbre.

*4. Datos de Contacto del solicitante.*

En este bloque, opcionalmente se indicarán los datos de contacto relativos a la solicitud de precintas. La Administración tributaria o la Fábrica Nacional de Moneda y Timbre harán uso de estos datos para remitir información de la solicitud y de las entregas asociadas a la misma.

— NIF.

— Nombre, apellidos o razón social.

— Teléfono.

— Dirección de correo electrónico.

En todo caso, el solicitante deberá manifestar expresamente su conformidad a la autorización para la cesión de los datos de contacto a la Fábrica Nacional de Moneda y Timbre, a los únicos efectos de gestionar los envíos e incidencias asociadas a las entregas físicas de las precintas fiscales.

5. Solicitudes de precintas fiscales en los supuestos de importación o de recepción de bebidas derivadas del ámbito territorial comunitario no interno, previstos en los apartados 6 y 7 del artículo 26 del Reglamento de los Impuestos Especiales.

Adhesión en destino.

Dirección completa del lugar designado para la adhesión de las precintas, bajo control de los Servicios de Intervención de la Administración tributaria.

Adhesión en origen.

*6. Fecha envío preferente.*

Se debe indicar la fecha preferente de entrega de precintas. La fecha de entrega real podrá variar en función de la disponibilidad de las mismas.

*7. Graduación media año natural anterior.*

Se deberá indicar la graduación alcohólica media, con dos decimales, de las bebidas derivadas elaboradas y que hayan salido del establecimiento el año natural anterior.

*8. Existencias de marcas fiscales.*

Se debe indicar, por parte de los establecimientos solicitantes, las existencias de marcas fiscales, tanto adheridas como pendientes de adhesión a recipientes o envases.

EK\CV GAO-I-2020-00353

*9. Kudeaketa bulegoaren aurrean eratutako bermearen zenbatekoa.*

Adierazi beharko da, eurotan, Zerga Berezien Erregelamenduak 26. artikuluaren 5. apartatuan exijitutako bermearen zenbatekoa.

*10. Aurreko urtean etendura araubidean salbuespenik gabe egindako irteerak.*

Adierazi behar da, bi dezimal jarrita, zenbat litro dauden eskaeraren aurreko urtean etendura araubidean zerga bereziaren salbuespenik gabe egindako irteerei dagozkien edari deribatuetan.

*11. Marka fiskalen eskaera.*

Adierazi behar dira eskatutako xingolen eredua (kodea eta deskribapena) eta kopurua.

Eskaera berean hainbat xingola eredu eskatu ahal izango dira.

*12. Botila edo ontziaren edukiera.*

Adierazi beharko da, bi dezimal jarrita, zein den aurreko urtean eskatzailearen establezimendutik irtendako xingola itsatsiak dituzten botila edo ontzien baçtez besteko edukiera.

*13. Kudeaketa bulegoaren bidez fisikoki jasotzea.*

Fisikoki jasotzera baimendutako pertsona fisikoaren abizenak eta izena.

IFZ, jasotzailearena.

Sinadura.

*14. Oharren eremua.*

*9. Importe de la garantía constituida ante la oficina gestora.*

Se deberá indicar la cantidad, expresada en euros, de la garantía exigida por el apartado 5 del artículo 26 del Reglamento de los Impuestos Especiales.

*10. Salidas del régimen suspensivo sin exención del año anterior.*

Se debe indicar los litros, con dos decimales, contenidos en las bebidas derivadas correspondientes a salidas del régimen fiscal sin exención del impuesto especial, correspondiente al año anterior al de solicitud.

*11. Petición Marca Fiscal.*

Debe indicar el modelo (código y descripción) y cantidad de precinta/s solicitada/s.

Podrá solicitar varios modelos de precinta en una misma solicitud.

*12. Capacidad de la botella, envase o recipiente:*

Se deberá indicar la capacidad media, con dos decímales, de las botellas o recipientes con precintas adheridas salidas del establecimiento del solicitante el año natural anterior.

*13. Recepción física a través de oficina gestora.*

Nombre, apellidos de la persona física autorizada a la recepción física.

NIF del receptor.

Firma.

*14. Campo de observaciones.*

EK\CV GAO-I-2020-00353